

Erronda horietan herriko gazteek parte hartu ohi dute nagusiki, eta, kantuarekin batera, dirua biltzea izan ohi dute bidebateko helburu, saioa bukatu ondoren ala biharamunean otordua egiteko; jakiak hartu eta eskatzeko ohiturarik ere bada bazter askotan. Errondan ibiltzearena ospakizun erlijiosoari egindako gehigarri herrikoaia dugu, alderdi ludikoa alegia, jai-girokoa, garrantzi itzelekoa erlijioari eta lanari hain estuki loturik bizi izan den nekazal gizarte batean. Herri askotan, errondak alkatearen baimena behar izaten zuen kantatzera irten aurretik.



Ospakizunaren erroak

Esan bezala, Santa Ageda martiririk ospatuenetakoa dugu. Inudeen, eradoskitze garaian dauden haurren eta bularreko gaitzen bat daukaten emakumeen zaindari eta patroiz, kastitatearen eredu egina da moral kristauan eta baita ere, identifikazioz, amaren birtute on eta zuzenekikoa: ama bizitzaren iturri, babes eta berme gisa. Horregatik, nonbait, Euskal Herriko gizarte *matriarkalean* izan duen eta egun duen sustraia eta oihartzuna. Zenbaiten ustez hor izango luke argibiderik ere koplak kantatzean makilaz lurra jo eta erritmoa markatu beharrak: batzuentzat ama lurrari esna eta erna dadin egiten zaion deia da. Beste batzuen arabera, santuak jasandako biolentzia kantuz azaldu ahala kantariak emandako erantzuna, halaber bortxazkoa, litzateke.

Bata izan ala bestea, ala hirugarren bat, ziur dakiguna da urtero-urtero berritzen den tradizioa dela Santa Ageda eguneko.



Argitaratzaile:
Manuel Larramendi Kultur
Bazkuna



Babesle:
Andoingo
Udala



SANTA AGEDA



Bizitza

Santa Ageda mendebaldeko lau birjin eta martiri nagusien arteko lehenengoa da kristautzat. Sizilian jaio zen 230. urtean eta bai Palermo hiriak bai Cataniakoak ere bere sorlekua izana aldarrikatzen dute. Zalantzarik ez dago, alabaina, kristauak

atzematen zituzten garaian Palermon bizi zela Santa Ageda. Baina historiak berak baino mitoak eta mitoari buruzkoak damaigute gure gizartean mendez mende hainbesteko eragina izan duten santuaren bizipenen berri. Gazte-gaztetandik kristau, bere birjintasuna Jesukristo bere jaunari eskaintzeko agintza -promesa- egin zuen, eta bere edertasuna nonbait aparta izanik ezezko ugari eman behar izan omen zien ugarte osoko hamaika jaunaren ezkontza eskaerei.

Decio enperadoreak kristauak jazarri eta zigortzeko agindu berriak eman zituen garaian, Quinciliano Siziliako gobernadoreak abagune horretaz baliatu nahi izan zuen, Agedari berarekin ezkondu ala kristau erlijioari uko egiteko aukera eman. Santuak, jakina, ezezkoa eman bide zien behin eta berriro bi aukerei, eta Quincilianok, amorraturik, orduantxe eman omen zuen bigarrenaren kontura torturatzeko agindua: hamaika tortura egin arren bereari eutsi bide zionez, azkenik, Quincilianok bularrak kurrikez lauskitu eta ondoren ebakitzeko agindua eman zuen. Ziegan zegoela, ordea, San Pedrok mirari baten bitartez bularrak sendatu zizkion, eta gobernadoreak hori ikusirik hiltzerainoko martirioa eman omen zion. 251. urteko otsailaren 5ean hil zen.

Ospakizuna

Mendeetan zehar oso ospatua izan da Santa Ageda mendebaldeko kristauen artean, eta, jakina, Euskal Herriko herrietan jai-giroko ospakizuna izan da santaren eguna, bezperan kobleriak eta errondak baserriz baserri eta etxez etxe kantuan ibiliz Santa Agedaren alabantzak azaldu eta etxeakoandreaken begirunezko goraiapamena egiteko.



IHAUTERI KOPLAK

Dios te salve
bakailo jale
bost eta sei hamaika,
txorizorikan ez baldin bada
berdin zaiola lukainka.

1) Hor goien elizan
kanpaia jotzen ari da,
etxe hontako eskailleretan
usokumiak dabilta.

2) Hor goien iturri
kainuetatik etorri,
etxe hontako etxeakoandreak
AMA BIRJINA dirudi.

3) Hor goien lainoa
haren azpian otsoa,
arkakusoeak jango al diek
etxe hontako atsoa.

4) Ate horrek zuloa
ezin kabitu besoa,
hemendikantxe nik ikusten det
lukainka mutur goxoa.

Azaleko argazkia: Santa Ageda. Bidaniko Santa Ageda ermitako erretaula.

Barruko argazkia: Santa Agedaren martirioa. Arrasateko Santa Ageda elizako erretaula nagusia.

Kontrazaleko argazkia: San Pedro Agedari bularrak sendatzen. Arrasateko Santa Ageda elizako erretaula nagusia.

Ihauteri Koplak

Fa M.

Dios te sal - ve ba - kai - lo ja - le bost e - ta

Do M. Fa M.

sei ha - mai - ka txo - ri - zo - ri - kan ez bal - din ba -

Do M. Fa M.

da ber - din zai - o la lu - kain - ka Hor goi -

Do 7 Fa M.

en e - li - zan kan - pa - ia jo - tzen a - ri

Do M. Fa M.

da e - txe hon - ta - ko es - kai - le - re - tan u - so ku - mi -

Do M. Do 7 Fa M.

ak da - bil - tza.

Argitaratzaile: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.

Egoitza orokorra: Dr. Huizi kalea, 15- 1. ezk. ANDOAIN.

Babesle: Andoingo Udala. Kultura Batzordea. Urigain Kultur Etxea.

Laguntzaile: IKERFOLK. Iparragirre kalea, 8-1. Donostia.

Diseinua eta maketazioa: Javier Lopez Altuna.

Argazkiak: Manu Mujika Lasa.

Partitura musikalen egokitzapena: Mikel Mate.

Fotomekanika: Igara.

Inprimategia: Gráficas Lorea.

KOPLAK

Bedeinkatua izan dedila
etxe hontako jendea,
pobre ta umil dabilzanentzat
badute borondatea.

Libertatia eskatzen diot
etxeke printzipalari,
Santa Yagedaren alabantzak
kantatutzeroa noa ni.

Seda txamarra soinean eta
izaratxoa buruan,
bihar goizean joango zera
señora baten moduan.

Karexa txiki betea eta
aurten da zure urtea
zeure matrailek diruditela
krabelinaren lorea.

Krabelinaren lorea eta
larrosa maiatzekoa,
zeuri begira hementxe nago
damatxo bihotzekoa.

Koplak

1 Fa M. Do M.

Be-dein-ka-tu-a i-zan de-di-la e-txe hon-ta-

5 Fa M. Do M. Fa M. Do M.

ko jen-de-a po-bre_e-ta u-mil da-bil-tza-nen-tzat

10 Fa M. Do M. Fa M.

ba-du-te bo-ron-da-te-a

SANTA YAGEDA

Santa Yageda, Yageda,
bihar da Santa Yageda,
bihar da Santa Yageda eta
gaur bere bezpera gaua.

Oles ta oles etxeokak
jotzen ditut nik gaur atea,
jotzen ditut nik atea eta
kotsola bedi jendea.

Santa Yageda

1 Sol m. Re 7 Sol m. Re 7 Do m.

San-ta Ya-ge-da Ya-ge-da bi-ar da San-

7 Sol m. Re 7 Sol m. Re 7 Sol m.

ta Ya-ge-da bi-ar da San-ta Ya-ge-da e-

11 Re 7 Do m. Sol m. Re 7 Sol m.

ta gaur a-ren bes-pe-ra ga-ba.

17 Do m. Sol m. Do m.

Be-re bai-men-a es-ka-tzen di-ot e-txe-

20 Re 7 Sol m.

ko yaun-a-ri San-ta Ya-ge-da-ren on-ta-sun-

24 Re 7 Do m. Sol m. Re 7 Sol m.

ak e-ra-kus-te-re no-a ni.

SANTA AGEDA

Zorion etxe hontako denoi
oles egitera gatoz,
aterik ate ohitura zaharrak
aurten berritzeko asmoz;
ez gaude oso aberats diruz
ezta ere oinetakoz,
baina ezta sano gabiltza
ta kanta nahi degu gogoz.

Santa Ageda bezpera degu
Euskalerriko eguna,
etxe guztiak kantuz pozteko
aukeratua deguna;
Santa maitea gaur hartu degu
gure bideko laguna,
haren laguntzaz bete gentzake
egun hontako jarduna.

Santa Ageda

1 Sol m. Re 7

Zo-ri-on, e-txe hon-ta-ko de-noi! O-les

5 Sol m. Re 7 Sol m.

e-gi-te-ra ga-toz, a-te-rik-a-te ohi-tu-ra

9 Do m. Sol m. Re 7 Sol m.

zaha-rra aur-ten be-rrit-ze-ko as-moz. Ez gau-de

12 Re 7 Do m.

o-so a-be-rats di-ruz, ez-ta e-re oi-ne-ta-

15 Re 7 Sol m. Do m.

koz Bai-na ez-ta-rriz sa-no ga-bil-tza ta kan-

19 Sol m. Re 7 Sol m.

Erronda horietan herriko gazteek parte hartu ohi dute nagusiki, eta, kantuarekin batera, dirua biltzea izan ohi dute bidebateko helburu, saioa bukatu ondoren ala biharamunean otordua egiteko; jakiak hartu eta eskatzeko ohiturarik ere bada bazter askotan. Errondan ibiltzearena ospakizun erlijiosoari egindako gehigarri herrikoia dugu, alderdi ludikoa alegia, jai-girokoa, garrantzi itzelekoa erlijioari eta lanari hain estuki loturik bizi izan den nekazal gizarte batean. Herri askotan, errondak alkatearen baimena behar izaten zuen kantatzera irten aurretik.



Ospakizunaren erroak

Esan bezala, Santa Ageda martiririk ospatuenetakoa dugu. Inudeen, eradoskitze garaian dauden haurren eta bularreko gaitzen bat daukaten emakumeen zaindari eta patroiz, kastitatearen eredu egina da moral kristauan eta baita ere, identifikazioz, amaren birtute on eta zuzenkeria: ama bizitzaren iturri, babes eta berme gisa. Horregatik, nonbait, Euskal Herriko gizarte *matriarkalean* izan duen eta egun duen sustraia eta oihartzuna. Zenbaiten ustez hor izango luke argibiderik ere koplak kantatzean makilaz lurra jo eta erritmoa markatu beharrak: batzuentzat ama lurrari esna eta erna dadin egiten zaion deia da. Beste batzuen arabera, santuak jasandako biolentzia kantuz azaldu ahala kantariak emandako erantzuna, halaber bortxazkoa, litzateke.

Bata izan ala bestea, ala hirugarren bat, ziur dakiguna da urtero-urtero berritzen den tradizioa dela Santa Ageda eguneko.

Bizitza

Santa Ageda mendebaldeko lau birjin eta martiri nagusien arteko lehenengoa da kristautentzat. Sizilian jaio zen 230. urtean eta bai Palermoko hiriak bai Cataniakoak ere bere sorlekua izana aldarrikatzen dute. Zalantzarik ez dago, alabaina, kristauak atzematen zituzten garaian Palermoko bizi zela Santa Ageda. Baina historiak berak baino mitoak eta mitoari buruzkoak damaigute gure gizartearen mendez mende hainbesteko eragina izan duten santuaren bizipen berri. Gazte-gaztetandik kristau, bere birjintasuna Jesukristo bere jaunari eskaintzeko agintza -promesa- egin zuen, eta bere edertasuna nonbait aparta izanik ezezko ugari eman behar izan omen zion ugarte osoko hamaika jaunaren ezkontza eskaerei.

Decio enperadoreak kristauak jazarri eta zigortzeko agindu berriak eman zituen garaian, Quinciliano Siziliako gobernadoreak abagune horretaz baliatu nahi izan zuen, Agedari berarekin ezkondu ala kristau erlijioari uko egiteko aukera eman. Santuak, jakina, ezezkoa eman bide zion behin eta berriro bi aukerei, eta Quincilianok, amorraturik, orduantxe eman omen zuen bigarrenaren kontura torturatzeko agindua: hamaika tortura egin arren bereari eutsi bide zionez, azkenik, Quincilianok bularrak kurrikez lauskitu eta ondoren ebakitzeko agindua eman zuen. Ziegan zegoela, ordea, San Pedrok mirari baten bitartez bularrak sendatu zizkion, eta gobernadoreak hori ikusirik hiltzerainoko martirioa eman omen zion. 251. urteko otsailaren 5ean hil zen.

Ospakizuna

Mendeetan zehar oso ospatua izan da Santa Ageda mendebaldeko kristauen artean, eta, jakina, Euskal Herriko herrietan jai-giroko ospakizuna izan da santaren eguna, bezperan koblariak eta errondak baserriz baserri eta etxez etxe kantuan ibiliz Santa Agedaren alabantzak azaldu eta etxeakoandareen begirunezko goraiapena egiteko.



Zergatik jazten gara?

Jazkera, giza taldeen bereizgarri bat izan da eta da gaur egun ere. Dantzarako bereziki erabiltzen diren jantziez gain, badugu geure herrian jazteko era berezia (Jantzi zibila). Zenbait alderditan (Pirineoetan) gorde da, baina Euskal Herriko alderdi atlantiko honetan, joan den gizaldiarekin batera amaitu zitzaigun.

Beraz, Euskaldunok, beste edozein herri bezala, gure herri izakera gogoratzeko eta adierazteko, urte garai jakinetan elkartu eta jazten gara, gure arbasoen erara. Kantuz mantentzen dugun ohitura berbera, jantzian ere isladatzen dugularik. Izan ere, geure zaharrak eta baserri giroan bizi zirenak izan ziren joan den gizaldiaren amaieran, jazkerari dagokionez, usarioari eutsi zioten bakarrak eta horregatik, jazkera hori erabiltzen dugunean, "baserriarrez" edo "amonaz" jazten garela esateko ohitura dugu.

Esandakoaren haritik, IKERFOLKEN, gure "jantzi zibilaren" proposamena egiterakoan, ondorengo ezaugarrietan oinarritu gara:

Emakumezkoen jantzia

Buruan: lau puntadun zapia, tximalk atzeratuz eta kopeta libre utziz. **Soinean:** txanbraz eta gonaz osaturiko jarkia, ahalik eta luzeena (txonkatileraino), azpiko gona ikusten ez delarik. Aurreko mantal handia, aurrekalde osoa estaltzen duelarik.

Sorbaldan: zapia, lauki osokoa, erditik tolestua eta orratz edo brotzez kateaturik. **Oinetan:** galtzerdi eta oinetako beltzak edo artilezko galtzerdi beltz eta alpargata txuriak sokaz txonkatilean loturik.



Gizonezkoen jantzia

Buruan: txapela (ederra), **soinean:** fraka marradunak (milamarra, marra beltz-txuriak) .EZ BAKERORIK! EZ TXANDALIK!...

Alkandora txuria (kotoizkoa, harizkoa), edo marraduna. Txalekoa eta jaka (txaketa, kaiku edo lekeitiarra). Blusa beltza (ahal balitz, ez dadila rasokoa izan), milakoadro urdina. Lepoko zapia aukeran.

Oinetan: bai galtzerdi beltzak, oinetako beltz edo alpargata txuriek; baita, artilezko galtzerdi eta abarkak txonkatilean loturik.



Oharra: argibiderik nahi izan ezker, IKERFOLKera dei egin dezakezue (tf.: 291747)